

ARAU TEKNIKOEN PLEGUA, DEBA IBAIA ERREKUPERATU ETA BALIOA EMATEKO PROGRAMA INTEGRALAREN ERREDAKZIO LANEN KONTRATAZIOA, IRAGARRITAKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZKOA, ARAUTUKO DUENA.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Debabarreneko garapen ekonomikorako elkarte – Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, s.a. (DEBEGESA) Debabarrenean, hau da, Deban, Eibarren, Elgoibarren, Ermuan, Mallabian, Mendaron, Mutrikun eta Sorluzen garapen iraunkorra sustatzeko interesa duten jarduerak betetzen dituen elkarte bat da.

Kontratu honen oinarrian Debabarreneko Garapen Iraunkorrerako Plan Estrategikoan (2006-2010) jasotakoa dago. Eskualdeko zortzi udalek onartutako plan horretan Debabarrenerako estrategikoak diren 7 proiektu zehazten dira, eta haietako bigarrena “Deba ibaia” izenekoa da. Era berean, Agenda 21 Eskualdeko Ekintza Planean (2003an onartua) eta Debabarreneko Turismoa Sustatzeko Planean berariaz adierazten da garrantzitsua dela “Deba ibaiari” balioa emateko aukera ekarriko duen azterlan bat egitea.

Lan hau Ingurumen eta Lurraldearen Antolamendu Saileko Uraren Euskal Agentziaren lankidetzarekin egin da. Deba ibaiari dagokionez, Autonomia Erkidegoko administrazioaren eskumen osoa da uraren arloko legeek arautzen dituzten gaietako administrazio ebazpenak ematea (Uraren Euskal Agentziaren bitartez). Alegia, Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeak izaera juridiko berria ematen dio Uraren Euskal Agentziari, ordura arte nagusiki Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak betetako eginkizunak eta eskumenak bere gain har ditzan, bai eta 1/2006 Legeak ematen dizkion beste berri batzuk ere. Lan horien artean daude Plangintza Hidrologikoarekin zerikusia duten guztiak, zeinak Uraren Esparru-Zuzentarauak (2000/60/EE) ezarritako jarraibideekin bat beteko baitira. Uraren Esparru-Zuzentarauaren aplikazioak ur guztien (lur azalekoak, lurpekoak eta kostaldea) planifikazioa eta kudeaketa integratua egitea eskatzen du, eta hura onartu izanak aldaketa ekarri du uraren kudeaketaren paradigman, ur ingurunearen kudeaketa

integratua eta ekosistemetan oinarritua izan behar delako orain. Beraz, proiektu hau garatzeko nahitaezkoa da Uraren Euskal Agentziaren lankidetzeta.

Finean, kontratuaren xedea da Ibaiak eta haren inguruneak dituzten natur baliabideen, ondare historiko artistikoaren eta giza jardueraren egoerari buruzko informazioa biltzea. Aldi berean, eta azterlan horren emaitza moduan, ibaiaren erabilera eta kudeaketarako arauak ezartzeko asmoa dago, eta halaber etorkizunean bete beharko diren ekintzak. Helburua da Deba ibaiaren plangintza eta kudeaketa integratu eta integratzailea egitea.

Lanaren esparrua Deba ibaiak Debabarreneko eskualdean egiten duen tartea izango da (Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze), itsasoratzen denetik Ego ibaiarekin bat egiten duen tokiraino. Lanek kontuan hartuko dituzte ibai-ibilguaren eremua eta ibai bazterrak. Era berean, azterketaren eta proposamenen norainokoa zehazterakoan, identifikatu beharko dira ibaiaren errekupeziorako -ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa- balioa eduki dezaketen baliabideak, ibaiaren beraren elementu fisikoak ez badira ere. Hau da, gutxienez honako eremu hauei buruzko hausnarketak bildu beharko dira:

- Sasiolako Monasterioa.
- Astigarribiako San Andres eliza.
- Praileaizko aztarnategi arkeologikoa eta beste batzuk.
- Deba-Mutriku.
- Deba ibaiaren estuarioa.
- Deba ibaiaren estuarioa.
- Done Jakue Bidea.
- Pasealekuak, aisia eta jostetarako tokiak.
- Ekoizpen eremuak (nekazaritzakoak, industriakoak etab,)
- Hiri populazioguneak.
- Zamakola tailerra (Eibar).
- Altzola (eraikin-hondakinak).
- Zentral hidroelektrikoak Deba ibaian zehar.
- Etab.

Hau da, helburua da Deba ibaiari eta haren ibai-adarrei balioa ematea, eskualdeko ardatz antolatzailea diren aldetik, eta Debabarreneko paisaiaren, nortasunaren eta erakarmenaren funtsezko osagai bilaka daitezen.

Horretarako, beharrezkoa da zerbitzu-kontratu baten lizitazioa egitea, kontuan hartuta kontratuak berarekin dakarren prestazioaren xedea bat datorrela Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen 10. artikuluan araututakoarekin. Kontratua pribatua da, aipatutako lege horren 20. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. PROPOSAMENAREN HELBURUAK

Azterketatik ateratzen diren proposamenetan lehentasuna eman beharko zaie Uraren Esparru-Zuzentarauak ezartzen dituen ingurumen arloko helburuei, Deba ibaiaren egoera ekologiko egokia lortzeko, zenbait alderdi aintzat hartuz:

- Uren kalitate fisiko-kimikoaren egoera ona. Horretarako, ur ingurunerako babes handiagoa eta hobekuntzak bultzatu behar dira, besteak beste isurketak eta emisioak eta funtsezkoak diren substantzien galerak murrizten joateko neurri berariazkoak hartuz. Horren guztiaren helburua da bermatzea uren kutsadura pixkanaka murrizten dela eta kutsadura berririk ez dela gertatzen.
- Egoera hidromorfologiko ona (ibaiaren ur-emia eta morfologia). Prebentzioa, egoera ez okerragotzeko, uretako ekosistemen babesa eta egoeraren hobekuntza aurreikusiz, arlo hauei dagokienez: ur beharrak eta ur ekosistemekin lotura zuzena duten lurreko ekosistemenak eta hezeguneenak.
- Osagai biologikoaren egoera ona (arrainak, ur bazterreko fauna eta landaretza)
- Uraren erabilera iraunkorra sustatzea, dauden ur baliabideak epe luzera babestean oinarrituta.
- Uholdeen eta lehorteen ondorioei aurre egiten laguntzea.

Halaber, aurreko helburuekin bat beste hauek ere planteatzen dira:

Tarteko helburuak

- Harekin lotutako baliabide kultural, sozial eta ekonomikoak identifikatu, ezagutu, aztertu eta indartzea.
- Ibai bazterretako nahiz ibaiko flora eta faunaren basa espezieak identifikatu eta ezagutzea, baita espezie inbaditzaileak, intereseko paisaiak eta habitatak, indarrak eta mehatxuak, desagertzeko zorian dauden espezieak etab.
- Deba ibaiak dituen arazo nagusiak atzematea.
- Deba ibaiak dituen indar, ahulezia, aukera eta mehatxu nagusiak identifikatzea.
- Arlo honetan dauden jardunbide eta esperientzia onenak identifikatu eta ezagutzea.
- Komunikazio plan bat egitea.
- Debabarreneko udalen artean uren arloko sentsibilizazioa, prestakuntza eta ingurumen hezkuntza sustatzea, zerikusia duten eragile guztiek adostu beharreko ekintza plan baten bidez.

Amaierako helburua:

- Deba ibaiaren errehabilitazioa, ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala, sustatzea, haren erabilera eta kudeaketarako jarraibideak ezarriz, eta aurrerago bete beharko diren jarduerak planteatzea.
- Ekintza plan integral eta operatibo bat ezartzea, gaiarekin zerikusia duten eragile guztien artean adostua.

3. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK ETA EDUKIA.

Kontratu honetan planteatzen da elementu hauek garatzea: diagnostiko bat, hausnarketa estrategiko bat, ekintza plan bat eta komunikazio plan bat (marka-irudiaren definizio moduan ulertuta).

Lan hau betetzeko beharrezkotzat jotzen da kontratuaren edukia garatzeko eratuko den jarraipen mahai batekin koordinatzea. Halaber, enpresa adjudikazio hartzaileak eskualdeko eragile adierazgarrienekin kontrastatu beharko du lana, eta aipatutako agiri horiek egokitzat jotzeko metodologia planteatu.

Bete beharreko lanei dagokienez, atal honetan gutxieneko edukiak azpimarratuko ditugu:

DIAGNOSTIKOAREN agiria:

1.- Esparru juridikoaren azterlana: eskumenak.

Atal honen helburua da administrazio desberdinen eskumenak zein diren zehaztea. Informazio hau Ekintza Planean eragile bakoitzak dituen eginkizunak finkatzeko oinarri moduan erabiliko da.

2.- Lurraldearen antolamendua eta hirigintza planeamendua. Titularitatea.

Lurraldearen antolamendurako eta hirigintza planeamenduko tresnek jarduketaren xede diren eremuei nola eragiten dieten aztertzea, tresna horiek behin betiko onartuta dauden edo ez kontuan hartu gabe.

Lurzoruaren titularitatea, mugaketaren arabera.

Informazio honetatik beharrezkoa dena oinarri moduan erabiliko da Ekintza Planean eragile bakoitzak edukiko dituen eginkizunak zehazteko.

3.- Ondare historikoa eta kultur ondarea. Titularitatea.

Deba ibaiaren ekosistemarekin lotutako eraikin-ondarea, historia eta kulturaren aldetik interesa duena, identifikatu, ezagutu eta aztertzea.

Oro har: zubiak, errota, presak, iturriak, askak, dorretxeak, olak etab.

Bereziki: Done Jakue Bidea, Sasiolako monasterioa, Astigarribiako San Andres eliza, Praileaizko aztarnategi arkeologikoa eta beste batzuk, Altzola (eraikin-hondakinen eremua).

Lurzoruaren titularitatea, mugaketaren arabera.

4.- Azpiegiturak (trenbidea, errepideak, aforoa neurtzeko estazioa, zentral hidroelektrikoak etab.)

5.- Ingurune fisikoaren azterketa.

- Deba ibaiaren ekosistemak eta azterlanaren xede den tartekak (Deba ibaia-Debabarrean egiten duen zatia) dituzten ezaugarriak zehaztea, indarrak eta mehatxuak nabarmenduz eta gai hauen inguruko arazo nagusiak atzemanaz:
 - Ur emariak (kalitatea eta kantitatea).
 - Ur-bazterreko landaretza.
 - Flora eta faunaren espezie autoktonoak eta aloktonoak.
 - Espezie mehatxatuak eta desagertzeko zorian daudenak.
 - Ibaiko habitat eta paisaia nabarmenak.
- Natura 2000 sarean sartutako eremuak identifikatzea, baldin badaude, eta ibaiaren inguruko eremuen babes planteatzea, babes ofizialik gabeko faunari, hegaztiei, florari eta landaretzari dagokienez.
- Errekuperatu daitezkeen eremu hondatuak zein diren zehaztea.
- Identifikatzea zein ibai-tartetan komeni den landaretza berritzea bazterretan, ibaiko paisaia hobetzeko.
- Identifikatzea zein diren, haien ezaugarriak direla-eta, babestu beharreko eremutat har daitezkeen ibai-tartekak edo gunek bereziak, ibai-erreserba edo eszena-tarte moduan, egun babes ofizialik ez dutenak.

- Jabari publiko hidraulikoaren okupazio handiena duten ibai-tarteak identifikatzea.

6.- Ingurune Hidrikoaren egoera (kalitatea, morfologia, hidrologia)

7.- Urak har ditzakeen eremuak.

- Urak hartzeko arriskua duten ibai-tarteak identifikatzea.

8.- Ingurunean eragin berezia duten jarduerak.

- Ingurunean eragin berezia duten jarduerak identifikatzea.
- Identifikatzea zein diren ibaiaren eremu bereziak, ingurumen helburuak eta ibaiaren beste erabilera batzuk -ibaia aktibo ludiko eta eko-sozial moduan hartuta- bateragarri egiteko balio dezaketenak (oinezkoentzako ibai bazterreko pasealekuak, eta kasu batzuetan bizikletentzako, ontzi txikiekin uretan ibiltzeko moduko tarteak, ibaiko paisaiari begiratzeko guneak, interes arkeologiko, geologiko, historikoa duten tokiak, bainatzeko tokiak, aisialdikoak etab.)

9.- Saneamendua eta hornidura.

- Saneamendu eta hornidurako azpiegituren azterketa. Beharrak atzemateko moduetan zenbat aurreratu den.

10.- Egungo eta etorkizuneko planak eta proiektuak.

- Aztergaia den eremuan eragina duten eta edukiko duten planak eta proiektuak identifikatzea, egungoak eta etorkizunekoak.

11.- Kontserbazio arriskuak

- Kontserbazio arriskuak zein diren zehaztu eta aztertzea.

12.- AMIA azterketa.

- AMIA azterketa baten bidez jasotako diagnostikoaren laburpen orokorra.

Deba ibaian erabili beharreko ESTRATEGIARI BURUZKO HAUSNARKETAren agiria Estrategiaren definizioa.

EKINTZA PLANAREN agiria.

Proposatutako jarduerak gutxienez alderdi hauei heldu beharko diete:

- Ibaiarekin lotura duten baliabideak, natura eta kulturakoak, sozialak eta ekonomikoak, errekuperatu eta balioa emateko proposamenak.
- Dauden hiri esparruen eta esparru urbanizagarrien antolamendua aztertu ondoren, hobekuntzarako proposamenak egitea, bidezkoa bada.
- Deba ibaiarekin lotutako hiri eremuak biziberritzeko proposamenak. Ibaiaren bazterretan eta ibaitik hurbil dauden hiriguneen erakarmena hobetzeko proposamenak (batez ere Soraluze eta Elgoibar).
- Ingurumena errekuperatzeko proposamenak.
- Ingurumen aldetiko helburuak eta ibaiaren beste erabilera batzuk -ibaia aktibo ludiko eta eko-sozial moduan hartuta- bateragarri egiteko helburua duten proposamenak (oinezkoentzako ibai bazterreko pasealekuak, eta kasu batzuetan bizikletentzako, ontzi txikiekin urtean ibiltzeko moduko tarteak, ibaiko paisaiari begiratzeko guneak, interes arkeologiko, geologiko, historikoa duten tokiak, bainatzeko tokiak, aisialdikoak etab.)

Ekintza planean bildutako jardueren definizioa. Gutxienez informazio hau eduki beharko dute:

- Deskripzioa.
- Lehentasuna.
- Exekuzio/ezarpen epea.
- Aldizkakotasuna.
- Kalkulatutako kostua.
- Finantzaketa.
- Jarraipenaren ardura.
- Exekuzioaren gaineko kontrola.

KOMUNIKAZIO PLANAREN agiria

Komunikazio planak gai hauei heldu beharko die:

- Proiektuaren kokapen estrategikoa.
- Marka-irudia.
- Komunikaziorako estrategia.

4. PROIEKTUAREN FASEAK ETA EPEAK.

Proiektua garatzeko fase hauek planteatzen dira:

- 1.- Diagnostikoa egokitzat ematea.
- 2.- Hausnarketa estrategikoa.
- 3.- Ekintza plana.
- 4.- Ekintza plana egokitzat ematea.
- 5.- Emaitzen jendaurreko aurkezpena.

5.- AURKEZTU BEHARREKO PRODUKTUAK.

Eman beharrekoak hauek dira:

- 1.- DIAGNOSTIKOA
- 2.- HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA.
- 3.- EKINTZA PLANA.
- 4.- KOMUNIKAZIO PLANA.
- 5.- PROIEKTUA GARATZEKO BEHARREZKOA DEN KOMUNIKAZIO MATERIALA.

Horiekin batera proiektua garatzeko beharrezkotzat jotzen diren planoak, argazkiak eta gainerako dokumentazio grafikoa ere aurkeztu beharko da. Aurkezten den proposamenean zehaztu beharko da erantsi beharreko planoen tipologia, bai eta gainerako material grafikoarena ere. Horrez gain, enpresa adjudikazio hartzaileak Eusko Jaurlaritzaren Informazio Grafikoaren Sistema Korporatiboaren estandarrak kontuan hartu beharko ditu.

Paperezko dokumentazioaren hiru kopia aurkeztu beharko dira, testua DINA-A4 neurrian eta planoak eta gainerako dokumentazio grafikoa proposamenean zehaztutako moduan, bi aldeek adostuta. Era berean, den-dena euskarri informatikoan ere aurkeztu beharko da.

6.- PROIEKTUAREN JARRAIPENA ETA KOORDINAZIOA.

Enpresa adjudikazio hartzailearen metodologiak aukera eman beharko du proiektuaren koordinazioa eta jarraipena modu egokian egiteko.

Barne koordinazioa. Metodologia hori garatzeko kontuan hartu beharko du horretarako eratuko den jarraipen mahaia, zeinetan parte hartuko baitute administrazio eskudunek.

DEBEGESAk uneoro izango du proiektuaren aurrerapausoen berri.

7.- BEHAR DIREN LANGILEAK ETA BALIABIDE TEKNIKOAK.

Diziplina anitzeko talde teknikoa izan beharko da, azterketa-eremu desberdinetako espezialistekin (legeria, lurraldearen antolamendua eta hirigintza planeamendua, ingurumena, turismoa, ondarea etab.)

Aurkeztutako talde teknikoko kide bakoitzaren dedikazioa eta eginkizuna aurkeztutako proposamenean zehaztu beharko dira.

8.- EMAITZAK EGOKITZAT EMATEA

Proiektuan metodologia bat sartu beharko da, proiektuaren emaitzak eskualdeko ingurune sozio-ekonomikoko eragile adierazgarrienekin kontrastatzeko aukera emango duena.